

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Isidora Claveranne

*Garrüze,
Nafarroa
Beherea (1926)*

Aurkibidea



Biografia



Isidora Claveranne, sortzez Candau, 1926an sortu zen Garrüze Portalenean.

Portalenea ostatu ezaguna zen eta aldi berean etxalde ttipi bat. Bi alabetan gehiena izanez, etxearen segida hartu zuen. Brodatzen, josten, sukaldatzen ikasi zuen eta kozinatzen zekiena praktikan eman, aitamak ostatuan lagunduz. Bi aldiz alargundu da Isidora. Lehen ezkontzatik ukan zuen seme batek jarraitzen du gaur egun ostatuan.

Zintak

GZE-002

- **Proiektua:** Euskal kultur erakundearen artxiboak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lekumberri, Terexa
- **Data:** 2007-12-17
- **Iraupena:** 72 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Haurtzaroa Garruzen 1930 hamarkadan

- **Erref:** GZE-002/001
- **Iraupena:** 0:04:01. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:04:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

Berrogoi ta hamar bat haur baziren Garruzeko eskolan, bi geletan banatuak, errienta eta errientsa batekin. Komunione ttipia 8 urtetan egiten zuten eta hortarako gogoz ezagutu behar zen katixima. Hortarik landa, komunione handitik eta konfirmazionetik pasatzen ziren gazteak (azken urrats hau iragaitean 14 urte zituzten). Neska jokoetan baziren firak, harriarekilako jokoak (laukien gainean harriarekin), pilota.

2. Garruze herriko bizia

- **Erref:** GZE-002/002
- **Iraupena:** 0:03:53. **Hasi:** 00:04:01. **Bukatu:** 00:07:54

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Lanbideak

Laburpena:

Lanbide frango baziren garai hartan Garruzeko plaza inguruan : 5 epizeria (janaritegia), dotzena bat ostatu, 2 okindegi, ahotza, mahasturua, segeria, haragina, oskiegilea, kabala martxantak. Elizatik hurbil bizi zen emazte bat arduratzen zen elizaz

3. Garruzeko ortziraletako merkatua

- **Erref:** GZE-002/003
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:07:54. **Bukatu:** 00:10:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera

Laburpena:

Garruzeko merkatua bi astetarik egiten zen, ortziraletan. Iraun du Garruze Donapaleuri lotu arte (1966). Ondotik, merkatu honen orde, primaderako feria ttipi bat sortu zuten, bainan hau ere desagertu zen 1996an. Gaur ezagutzen dugun Garruzeko feria famatua aldiz (urtarrilaren 31an eta agorrilaren 1ean) aspaldikoa da. Isidora Claverannek 81 urte ditu eta ttipi ttipitik ezagutu du..

4. Neska gazten formakuntza

- **Erref:** GZE-002/004
- **Iraupena:** 0:05:50. **Hasi:** 00:10:01. **Bukatu:** 00:15:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Aisia » Kultura » Zinema
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Orduko neska gaztek ikasten zuten brodatzen, josten eta kozinatzen. Hauxe egin du beraz Isidora Claverannek 15 urtetik 22 urteraino : urte bat erdiz brodatzen Donapaleun, 2 neguz josten Behauzek, negu batez sukaldaritzan, bere erakasle desberdinek 50 urte inguru zituztela. Igande arratsalde, bezperetarik landa, neska gazteak Donapaleura joaiten ziren oinez. Zinea bazen Donapaleun.

5. Sukaldari baten segetuak (errezetak)

- **Erref:** GZE-002/005
- **Iraupena:** 0:08:21. **Hasi:** 00:15:51. **Bukatu:** 00:24:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Errezetak

Laburpena:

Neska gaztek «Ecole ménagère» delakoan ikasten zuten kozinatzen. Donapaleun bat bazen. Neskek hor egunero esperimentatzen zuten menua (sartzea, erdiko platea eta postrea) kaier berezi batean idazten zuten. Isidora Claverannek atxiki du kaier hori. Laket zaizkion errezeta batzu salatzen dizkigu : oiloa haragiz betea, saltsak (atzarkia, atuna edo oilarra saltsa berezietan), moleta hanturik (omelette soufflée), bixkotxa borobildurik (gâteau roulé).

6. Kongregazionea 1950 hamarkadan

- **Erref:** GZE-002/006
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:24:12. **Bukatu:** 00:26:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Komunione handia egin eta ezkondu arte, «fille de Marie» egoiten ziren neska gazteak. Mantalina xuri batez janzten ziren igandetako mezan eta mutikoekin dantzatzeko debekua zuten. Isidora Claverannek hori ezagutu du 12 urtetatik 27 urte arte (1938-1952).

7. Garizuma eta Jondonibane besta

- **Erref:** GZE-002/007
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:26:22. **Bukatu:** 00:28:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Mehe egiten zuten jendek garizuma denboran, Jondonibane besta etortzen zenean, lorez eginikako gurutzea ezartzen zen ate gainean.

8. Ezkontza 1953an

- **Erref:** GZE-002/008
- **Iraupena:** 0:05:07. **Hasi:** 00:28:41. **Bukatu:** 00:33:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Isidora 1953an ezkondu zen. Prestakuntza apezarekin egin zuten bizpairu

egun lehenago. Ezkontzak irauten zuen egun osoan eta batzutan biharamunean ere. 80 bat jende biltzen zen, musikariek alaitzen zutelarik besta. Dantza arrakastatsuenetan : valse, paso doble, mazurka, tango, mutxikoak eta fandangoa.

9. Haur ukaitea 1950 hamarkadan

- **Erref:** GZE-002/009
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:33:48. **Bukatu:** 00:35:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Etxean ukaiten ziren haurrak. Emailsa bat bakarrik zen Donapaleun : Etchepare anderea. Batzu klinikara joaten ziren. Haurra ukan eta, elizako urratsei berriz lotzeko eliza-sartzea egiten zen.

10. Garruzeko feria: animaleak, tratulariak, besta

- **Erref:** GZE-002/010
- **Iraupena:** 0:05:19. **Hasi:** 00:35:16. **Bukatu:** 00:40:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Beste batzuk
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Euskal Herriatik, Frantziatik, Italiatik heldu ziren animaleak...Urrunekoak treinez heldu ziren, hurbilekoak (Hazparne, Sara...) oinez eta tropaka, tokeroek gidaturik. Tokeroa makiñunaren (tratulariaren) langilea zen : haren kabalak feriara eramaten zituen edo feriatik etxera ekartzen, oinez. Goizean goizik feriara etortzen zirenentzat, goizeko haskaria (azitan, plateran) eta eguerdiko bazkaria sakratuak ziren. Ostatuan egiten ziren ere tratu batzu. Tratuarekin artetik, elgarrekin egotea eta besta egitea garrantzitsua zen. Feria arratsean, merkatu estali pean, dantzaldia bazen.

11. Feriako tratulariak

- **Erref:** GZE-002/011
- **Iraupena:** 0:04:52. **Hasi:** 00:40:35. **Bukatu:** 00:45:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Beste batzuk
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Tratularietan orotarik bazen : laborariak edo ez, onestak edo ez, batzu ohointzan ere trebatzen ziren. Nahiz eta gehienak gizonak izan, emazte bakar batzu ere baziren. Gizon guziak xamarrekin beztituak ziren, xapela, kasketa edo boneta buruan eta azotea eskuan. Itxura ederra zuten. Tratua elez egiten

zuten, eta egin orduko, parrekoari eskua emaiten.. Garruzeko Portaletenea ostatuan, gela berezi bat bazen zointan makiñunek laborariak pagatzen zituzten. Ostatu hortako Isidora Claveranne etxeko andere xaharrak dio, gaurregun, tratuak ez direla lehen bezain argiki egiten.

12. Feriako gitoak

- **Erref:** GZE-002/012
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:45:27. **Bukatu:** 00:49:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera

Laburpena:

Gitoak ere hurbiltzen ziren feriara , beste jendeeri sobera nahasi gabe. Beren roulottetan bizi ziren. Gauza batzu ferian saltzeaz gain (mahai-estaliak etabar), etxez etxe ibiltzen ziren pualleriaren (oilasko, ahate) tripakien bila. Tripa hauetarik beren janaria ateratzen zuten. Gitoak ez dira bohamuekin nahastekoak.

13. Feriaren fama

- **Erref:** GZE-002/013
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:49:32. **Bukatu:** 00:52:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera

Laburpena:

1950-1960 hamarkadan, ostatuz inguratua zen Garruzeko plaza eta hauek, feria denboran, bete beteak ziren. Garruzeko plaza bera, aski handia izanez, oso egokia zen, holako feriarentzat. Garai hartan salerosleak bizpauru egunentzat etortzen ziren, bertan lo eginez.

14. Feriako kabalen edertasuna

- **Erref:** GZE-002/014
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:52:14. **Bukatu:** 00:54:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera

Laburpena:

Garruzeko feria dela eta, tokiko jendea atxikia da kabalaren edertasunari. Kabalak kupa eta azpi ederrak behar ditu. Feriaz aparte, bi urtetarik, ekaina bukaeran, bada Garruzen kabala xapelketa bat.

15. Feriaren antolatzaileak

- **Erref:** GZE-002/015
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:54:02. **Bukatu:** 00:54:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Batzorde berezi batek beregain hartzen du urtero feriaren antolakuntza teknikoa bai eta ere, bi urtetarik, kabala xapelketa bat.

16. Garruze Donapaleuri loturik (1966-1996)

- **Erref:** GZE-002/016
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:54:52. **Bukatu:** 00:57:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa

Laburpena:

30 urtez Garruze Donapaleuri loturik egon da . Garruztarrek ez zuten garai hori oso ondo bizi izan eta herriaren nortasuna defenditu nahiz, beren autonomia berreskuratu zuten 1996an. Isidora Claverannek Garruze herria laudatzen duen kantu baten ematen hasten zaigu

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-03

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com